



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2018ko MARTXOA - ALE BEREZIA

## Abiatu da 2018a Bertsozale Elkartearen

**"Barrura begiratu eta norabidez hausnartzeko" urtea izango du aurtengoa elkarteak, ohiko jardueren bitartez kanpoan eragiteari utzi gabe. Aho batez onartu genuen bazkideok egitasmoa.**

Iruñeko Kondestablearen Jauregia izan zuten erabakigune Bertsozale Elkarteak bazkideek martxoaren 10ean, 2018ko Batzar Nagusia tarteko. 10:30erako gerturatu ziren jauregi dotoreko atarira egun hori gorde zuten 73 bazkideak; tartean zale, bertsolari zein langileak. Diosalak eginda, barrura.

Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak lehendakariak egin zituen anfitrioi lanak eta lehengo urtearen atzera begirakoa egin genuen harekin: 30 urte bete ditu Bertsozale Elkarteak 2017an. Bide emankorra izan du urteotan eta iazkoak protagonista nagusi Txapelketa Nagusia izan badu ere, beste egitasmo ugari gauzatu dira. Iñaki Muruarekin batera gidatu zuten batzarra, Xabier Gaztelumendi idazkariak, Arrate Illaro diruzainak eta Aritz Zerain koordinatzaileak.

Iazko kontuak itxita, betaurrekoak aldatuz joan ginen lurraldez lurralde, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdi-Baxenabarre-Zuberoako eta Nafarroako Bertsozale Elkarteetako lehendakariak bitartez. Ondoren, Aritz Zerain Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak koordinatzaileak eman zuten 2018ko asmoen berri. "Barrura begiratu eta norabidez hausnartzeko" urtea izango du elkarteak aurtengoa, ohiko egitasmoekin kanpoan eragiten ari den bitartean. 2006an 2018 urte bitarteko bide-orria marraztu genuen moduan, aurtengo udazkenean, barne gogoeta estrategikoa egingo da Bertsozale Elkartearen etorkizunerako ildoak

markatzeko. Era berean, Mintzolaren eta Lankuren egitasmoak aurkeztu zituzten Beñat Gaztelumendik eta Beñat Gaztelurrutiak, hurrenez hurren.

### Agur ukituko batzarra

Hamarkada pasako bidea egin duten Iñaki Murua lehendakaria eta Xabier Gaztelumendi idazkaria elkarteak betebeharretatik agurtu ziren; ohorezko bazkide izango dira aurrerantzean, batzarrek berak Iruñean hala onartuta. Agurrerako modu berezia prestatu zuten: kazetari eta elkarrizketatu gisara euren bideari errepasoa eman zioten, batak besteari txandaka batzarrean bertan egindako elkarrizketan.

Baina datorrenaren agur ukitua ere izan zuten batzarrek, Murua eta Gaztelumendi ordezkatzera datorren zortzikotea aurkeztu baitzen; Miren Artetxek, Igor Elortzak, Beñat Gaztelumendik, Josu Goikoetxeak, Xabi Igoak, Arrate Illarok, Maialen Lujanbiok eta Eneritz Zabaletak osatutako taldeak esker oneko hitzak izan zituzten euren aurrekoentzat.

Batzuk agurtzeko eta besteei ongietorria emateko momentua ez zen batzarrera mugatu. Batzar osteko bazkariak ere izan zuten omenalditik eta baita une hunkigarriak ere. Taldean agurtu dugu orain artekoa eta taldean hasiko dugu hurrengoa; 30 urteotako bidea emankorra izan da eta hala izan dadila beste 30 urtean. 2018 on!



Iruñeko Kondestablearen Jauregian izan zen Batzar Nagusia //Alberto Elosee-XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarteak / Diseinua-maketak: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua  
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

# Lehendakaritza, taldean

**Iñaki Muruak eta Xabier Gaztelumendik utzitako lekua zortzikote batek beteko du. Hala, Bertsozale Elkarteko gainerako zuzendaritza kideekin batera izango dira zortziak elkarteen gidaritzan.**

Hamarkada baino gehiago egin dute Iñaki Muruak eta Xabier Gaztelumendik Bertsozale Elkarteko zuzendaritzan. 2002an hasi zen Gaztelumendi borondatezko lanean, isilpeko lan horretan ekarpen bikaina eginez. Murua elkarteen sorreratik bertatik aritu da lanean eta 2005ean hartu zuen lehendakari kargua, Imanol Lazkanoren eskutik. Elkarteen garapenerako, proiektuaren gizarteratzerako zein erakundeekin izandako harremanetarako giltzarri izan da bere jarduerak.

Bertsolaritzaren egungo aniztasunarekin bat etorri eta ikuspegi ugari lehendakaritza modua eskaini asmoz, talde arduraren erantzungo zaio aurrerantzean orain arte eurek betetako funtzioei. Hala, elkartean, eta egungo gizartearen oro har, ohikoa den elkarlan eta ardurak bantatzeko dinamikan, beste urrats bat da honakoa.

Bertsolaritza munduko kide erreferenteak dira guztiak, profil anitzekoak: Miren Artetxe, Igor Elortza, Josu Goikoetxea, Xabi Igoa, Maialen Lujanbio eta Eneritz Zabaletarekin batera, lehendik ere zuzendaritza kide ziren Beñat Gaztelumendi eta Arrate Illaro izango dira lantalde berrian. Iaz, Bertsozale Elkarteen baitan lehendakaritza ereduari buruz egindako gogoeta prozesuan hautatutako kideak dira.

## Uitziko gogoetatik mamitutako aldaketa

Jarduerak berak hala eskatuta bat-bateko jardueran trebatutako elkarteak izan arren, 2017ko otsailetik martitzen hasitako aldaketa izan da azken Batzar Nagusian aurkeztu dena.

Kargudunen aldaketa aztertzeke barne gogoeta saioa egin genuen Uitzin iaz, urtearen hasieran. Ahalik eta ordezkaritza orekatuena deitu zen eta 40 lagun inguruk hartu genuen parte. Han erabaki zen karguei talde arduraren erantzutea, eta aipaturiko kideak hautatu ziren taldea osatzeko. Hala, lehendik ere kolore anitzekoa den zuzendaritza taldea are gehiago aberastera dator zortzikotea, izan ere, talde hau Bertsozale Elkartek gaur arte izan duen zuzendaritzara batuko da, eta sailetako arduradunekin, Lankuko zuzendariarekin eta lurraldeetako elkarteetako lehendakariarekin batera partekatuko dute Bertsozale Elkarteen gidaritzak.



Zuzendaritza talde berria: Estibalitz Esteibar, Komunikazio Saileko arduraduna; Saroi Jauregi, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakaria; Aritz Zerain, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea; Marta Agirrezabala, Lanku Kultur Zerbitzuetako koordinatzailea; Josu Goikoetxea, Miren Artetxe, Arrate Illaro, Beñat Gaztelumendi, Xabi Igoa, Eneritz Zabaleta, Igor Elortza eta Maialen Lujanbio, lehendakaritza taldeko kideak; Asier Ibaibarriaga, Bizkaiko Bertsozale Elkarteko lehendakaria; Xumai Murua, Bertsularien Lagunak Elkarteko lehendakaria; Alaitz Rekondo, Nafarroako Bertsozale Elkarteko lehendakaria; Ekaitz Elorriaga, Arabako Bertsozale Elkarteko lehendakaria; Oihana Iguaran Transmisio Saileko arduraduna eta Jone Uria Sustapen Saileko arduraduna. // Alberto Elosegi-XDZ

# Ziklo aldaketa

**30 urteko bide oparoa egin du bertsoaritzaren mugimenduaren baitan Bertsozale Elkarteak. Ibilbideaz hausnartu eta aurrera begirako norabidea erabakitzeko urtea izango da 2018a.**

2006an, orain 12 urte, egin zen Bertsozale Elkartearen etorkizun ikuspegia zedarritzeko azkeneko gogoeta estrategikoa. 18 urte bete berritan. Adin nagusira iritsi eta, garaiak hala eskatuta, erabaki berriak hartu ziren. Bertsoaritzaren mugimenduan eragiteko hainbat helburu adostu ziren arloz arlo, bertsoaritzza bultzatzeko (sustapen-hedapen lana), belaunaldiz belaunaldi geroratzeko (transmisio lana) eta bertsoaritzari buruzko jakintza mailan sakontzeko (ikerketak lana).

## Bertsoaritzza sustatuz

Bide horretan, hainbat ekimen martxan dira etengabe. Gaztetxoentzat zein hain gazte ez direnentzat sariketak eta txapelketak antolatzen dira lurraldez lurralde, banakako zein taldekakoak.

Garai hartan Hitzetik Hortzera telebista saioa gauzatzen zen ETBrekin elkarlanean kanpoko ekoiztetxeen bitartez eta multimedia ekoizpen kate propioa sortzeko aukerarik bazegoen aztertzeko konpromisoa hartu genuen.

Aztertu bakarrik ez, hamabi urteren ostean, ikus-entzunezkoak garatzeko etxeko ekoizpen talde bat dugu: Hitzetik Hortzera telebista saioa ez ezik, Bertsoa.eus plaza digitala, eta ekoizpen bereziak garatzen dituen. Bertsoarien, gai-jartzaileen zein bertsoaritzako eragileen beharriari erantzuteko sortu zuen 2003an elkar-teak Lanku Kultur zerbitzu enpresa. Alor honetan ere jauzi esanguratsuak eman dira urteotan: bertso saioen antolaketan bitartekaritza zein produkzio lanetan, sortzaileen lan baldintzen erregulazioan, egile eskubideen arloan...

## Etorkizuna eraikiz

Belaunaldiz belaunaldi bertsoaritzza geroratzeko etengabeko lana egiten du elkar-teak. Bertso-eskolen sarea urtez urte zabalagoa eta anitzagoa da; Hezkuntza Arautuan urtero 25.000 hurrei eskaintzen diegu bertsoaritzza mota guztietako ikastetxeetan horretarako propio egokitutako ikasmateriala sortuz; aisialdiko eskaintza zabala dugu: udalekuak, barnetegiak, kantaldiak, topaketak...

## Sakonduz, zabalduz

Bertsoaritzaren jakintzan sakondu asmoz, ikerkuntza jarraitua egin eta eragiteko, sortu zen 2008an Mintzola Ahozko Lantegia hainbat erakunderekin elkarlanean. 2011n proiektua zedarritu zen ahozko kultur sorkuntzan kokatuz eta ordutik bide eder eta mamitsua ari gara marrazten: bertsoaritzza ikertuz, mundu mailako kantu inprobisatu ezberdinekin harremanean gure jarduera

aberastuz, euskarazko ahozko kultur sorkuntzako senideekin -antzerkia, kantu eta literatura- zubiak eraikiz...

## Zehar lerroan

Guzti honetarako ezinbesteko oinarria den Xenpelar Dokumentazio Zentroak ere etengabeko garapena izan du urteotan. Bertsoaritzaren behatoki dinamikoa da eta teknologia eta baliabideetan aurrerapauso handiak eman dira: [bdb.bertsozale.eus](http://bdb.bertsozale.eus) datu basean katalogo guztia kontsultarako jarritz, kantu inprobisatuaren mundu mailako mapa garatuz...

2006ko gogoetan printza piztu eta elkar-tearen ekinbide guztietan genero berdintasuna bultzatzeko Genero Taldea du elkar-teak.

## Aurrera begira, ilusioz

Etxeko lanak ongi eginda bete dugu 2006-2018 zikloa. Orain 12 urte bezala, aurrean, kanpora begira ohiko ekimenak gauzatu eta gizarteratzen ditugun bitartean, barrua antolatu eta hausnarketarako baliatu nahi dugu, etorkizunaz gogoetatu eta bidezidor berriak zabaltzeko. Udazkenean egingo dugu Bertsozale Elkartearen gogoeta estrategikoa, guztion artean etorkizuna ilusioz begiratzeko.

## Bazkide kuota, maiatzean kobratuko da

Elkar-tearen proiektua zabaldu denez, bazkide kuota igotzea proposatu du zuzendaritzak Batzar Nagusian. Aho batez onartu da. Norbanakoen kasuan 10 euro igoko da, eta 20 euro elkarte laguntzaileei dagokionez.

BAZKIDE MOTA	URTEKO KUOTA
NORBANAKOAK	60 EURO
ELKARTE LAGUNTZAILEAK	120 EURO
18 URTETIK BEHERAKOAK	EZ DUTE ORDAINTZEN

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, bazkide guztioi, bertsoaritzaren proiektuan sinetsi eta egiten duzuen ekarpenarengatik.

# Borondatezko lanean eredu

**Urte luzez egon dira zuzendaritzan Iñaki Murua eta Xabier Gaztelumendi. Karguak dakarren arduratik ez ezik, zaletasunaren emoziotik ere bizi izan dituzte urteok. Gustura doaz, testigu aldaketa ongi izanaren lasaitasunaz eta beterik sentituz.**

## IÑAKI MURUA

**Urte batzuk pasa dira kargua hartu zenuenetik. Hasiera batean aurreikusitakoa baino denbora gehixeko izan al da?**

Ez zegoen aurreikusitako eperik. Bertsozale Elkartean proiektuan lidergoa hartzeko, egun, ausardia, berezkoa eta jakinduria beharrezko dira eta horri erantzuteko ekipa aproposena aurkitu arte eta hauek denak batera aurrerapausoak ematen hasi arte, arlo desberdinak jorratu ditugu, lanketa moduak ere zainduta. Helburua ez zen noiz hasi baizik eta ondo hastea.

**Noiz hartu zenuen lehendakari kargua eta nola gogoratzen duzu testuinguru hura?**

Duela hamahiru urte izango zen, Zumaiako Kultur Etxean egin genuen Batzar Nagusian Imanol Lazkanok utzi eta nik hartu nuen. Baina, Elkarte sortu zenetik bertan nengbiltzen.

**Besteak beste, lehendakari hasi zinen garai beretsuan hasi zen BEC eta bertsolaritza binomioa elkarrekin. Ibilbide honetan zein eboluzio ikusi diozu bertsolaritzari?**

Bazetorren zerbait zen BEC eta ni parean tokatu nintzen. Bertsolaritzaren hedapenean gailurra izan da, oraingoan.

Duela bi Txapelketa Nagusi, A. Egañak behiak jezteko aulkia, hiru hankakoa jarri zuen ibilbidearen eske ma adierazle moduan: ikasi talde lanean, antolaketa, bileretan, hausnarketan eta borondatezko jardunean; ikasitakoa praktikan jarri; eta azkenik, plazan bertsotan komunikazio estrategiak praktikan jarri. Hori da gure BEC betetzen duena, eguneroko lana eta konpromisoa proiektuarekiko.

**Lehendakari begietatik bizi izan duzunarekin, zerk bete zaitu gehien langintza honetan?**

Proiektuak berak eta proiektua bizi dugun pertsonetik harremanak. Kapital humano oso aberatsa daukagu, jantzia eta kontuz zaindu beharrekoa bizi duen lan kargaren ondorioz. Inguru hau izanik, ikasteko egundoko aukera izan dut eta ikasi ere egin dudana ezjakin modura sentitzen naiz, eten gabeko eraberritzean bizi baikara. Nire bizitzako esperientzia aberasgarrienetakoa izan da, asko eman dut eta ematen jarraituko dut baina jaso dudana ez da gutxiago izan eta oso maitatua sentitu naiz.

**Datozeneri aholkurik?**

Gogoratu aho bat eta belarri bi ditugula! Ah eta, ez ahaztu arnasa hartzea!

## XABIER GAZTELUMENDI

**Noiz hurbildu zen Xabier Gaztelumendi Bertsozale Elkartera edo alderantziz?**

2002ko urtarrilean deitu zidaten. Etxean ordurako denok bazkide ginen, baina elkarte inoiz lan egin gabea nintzen.

**Eta zuzendaritzara batzeko proposamena nola jaso zenuen?**

Nire profil profesionala zuen bazkideren baten bila zebiltzala esan zidaten. Nik baiezkoa eman nien, baina erreparo handiarekin, zuzendaritzan zenbateko ekarpena egiteko gai izango nintzen zalantzarekin.

**Proiektuek eragin dezaketen suharrari zenbaitetan neurria jarri behar izaten zaie halabeharrezko erabakiekin. Buruhauste handiko lana izan al da?**

Ardura eskatzen du; hala ere, erabakiak taldean hartzen dira, eta denon artean errazagoa izaten da gaiek atzean dituzten ertz guztiak ikusten, asmatzeko.

**Erabaki guneetatik harago, ikus-entzulearen emoziotik ere bizi (izan) duzu bertsolaritza.**

Urte horietan ikusi ditut bi semeak bertsolari bezala hazten, eta ederra izan da iaz biak txapelketa nagusian kantari ikustea.

**Urte batzuk izan dira: mugarri izan den momentu hunkigarririk gogoan?**

Bertsozale bezala, BECen, 2013ko finalean, Beñatek Unai anaiari kantatutako agurrarekin geldituko nintzateke. Zuzendaritzakide bezala, Iñakik lehendakari kargua Imanolen eskutik jaso zueneko.



Urte luzez ekarpen handia egin dute elkartearen I. Murua eta X. Gaztelumendi. // Alberto Elosegi-XDZ